

## GURE BEZEROAK



## EUROPAR EBALUAZIOA 2008 (BIGARREN ZATIA)



### INTEMAN: BERRIKUNTZAREKIN BUELTAKA

Inteman Laborategiak ([www.inteman.com](http://www.inteman.com)), orain dela 25 urte sortutako enpresa, Gasteizen kokatuta dago eta produktu kimikoen diseinua, elaborazioa eta salmenta da bere aktibitate nagusia.




Azken hilabete hauetan, Acorde Consulting eta Inteman elkarlanean ari dira, berrikuntza ardatz hartuta, mota ezberdineko hainbat proiektu garatzen.

Hasteko, **Berrikuntza Agenda** bat egin zen, SPRI-ren + innova ekimenaren barruan. Proiektu honen bitartez negozio ezberdinen azterketa eta Ekintza Plan bat egin zen; azken honetan, hurrengo hilabeteetan garatu beharreko berrikuntza eta trebakuntza proiektuak zehaztu ziren. Proiektu hauen bidez berrikuntzaren alderdi guztiak jorratzen dira (antolaketa, merkaturak, prozesuak, eta produktu-zerbitzuak).

Agendan antzemandako ekintzetako bat, I+G+B-ren inguruko aktibitateak sendotzeko sistema baten ezarpena izan zen. Beraz, Inteman I+G+B Kudeaketa Sistema garatzen hasi zen eta, azken hilabete hauetan, **UNE 166.002 Arauaren ezarpenean** lan egiten ari da Acorde Consulting-en laguntzarekin.

Bestalde, Inteman, prozesuen kudeaketan sakontzeko helburuarekin, Acorde Consulting-ek zuzendutako Euskaliten **Prozesuen kudeaketa aurreratua** programan parte hartu zuen. Intemanek programa honetan lantzeko aukeratu zuen prozesua Produktu Berrien Garapena da eta lortutako emaitzak 166.002 Araua ezartzeko baliagarriak izan dira.

Intemanek planteatutako ikuspegi honen onura, berrikuntza bultzatzeko hiru alderdi osagarri lantzea da: Estrategia (Agenda), prozesuak eta sistemak.



Dagoeneko, 2008-ko deialdiko EFQM ebaluazioan nire parte-hartzea bukatu da. Aurreko buletinean jakinarazi nuenez, berriro ere "senior" bezala parte hartu dut. Kasu honetan, berritasuna "2005+" prozesuaren bidez ebaluatu dugula izan da, hemen memoria murriztuarekin egindako ebaluazio modura ezagutzen duguna hain zuzen ere.

Lana ez zen erraza izan. Bigarren aldiz aurkezten zen Hungariako enpresa bat egokitu zitzaigun, lehenengo aldian "finalista" maila eskuratu zuena. Hala ere, "2005+" ikuspegiarekin aurkezten zen lehenengo aldia zen. Lehenengo pausua ebaluazio taldearekin adostasun lana egitea izan zen. Zortea eduki nuen. Nahiz eta guztiak ez izan Ereduarekin eskarmentu berdina, guztiak genuen enpresa kudeaketan esperientzia eta talde lanean modu eragingarrian jarduteko ahalmena.

Arazoa bisitari aurre egin behar genionean heldu zen. Hiru egunetan zehar enpresako pertsonekin elkarriketak izan behar genituen eta, egia esan, lan zaila izango zela bagenekien, enpresari buruz genuen informazioa eskasa baitzen. Gabezia hauek gaintzeko ez zen arazorik egon, enpresako zuzendaritza taldearen jarrera ona izan baitzen.



Nire ondorioa honako hau da: "2005+" ikuspegia ebaluatzaile zein enpresari buruz genuen informazioa eskasa baitzen. Gabezia hauek gaintzeko ez zen arazorik egon, enpresako zuzendaritza taldearen jarrera ona izan baitzen.

Hala ere, hiru baldintza bete behar dira prozesua eraginkorra izan dadin. Alde batetik ebaluatzaile taldea bereziki aditua izan behar da, bai ereduaren ezagutzan eta baita enpresa kudeaketan ere. Bestetik, ebaluaziora aurkezten den enpresa gai izan behar da bere kudeaketa ereduaz azaltzeko, 32 azpikriterioen gidoia zehatz-mehatz jarraitzeaz haratago. Azkenik, enpresa eta ebaluatzaileek bisita era ezberdin batean antolatu behar dute, ikuspegiak eta logika sakonki azalduz.

Beste ondorio bat: nahiz eta ahaleginaren ondoren zin egin nuen ez nuela berriro parte hartuko, ziur nago errepikatuko dudala. Ez du merezi hain esperientzia aberasgarria pasatzen uztea.

### HURRENGO IKASTARROAK

- ✍ EFQM Kasu praktikoa baten ebaluazioa: Ebaluatzaile Klubean sartzeko aukera: urriak 21, azaroak 18 eta abenduak 2 Bilbon (APD). Irakaslea: José Antonio Calvo. Antolatzailea Euskaliti.
- ✍ EFQM txostenen erredakzioa: urriak 20 eta 27 Bilbon (APD). Irakaslea: Javier de la Peña. Antolatzailea Euskaliti.
- ✍ Mapa Estrategiko eta Aginte Taulen eraikuntza: urriak 23 Iruñan (APD). Irakaslea: José Antonio Calvo.

### BERRI LABURRAK

- ✍ Acorde Consulting-eko aholkulariek Berrikuntzaren Kudeaketa Sistemak ezartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren homologazioa lortu dute. Programa 6 eta 100 bitarteko lantaldea duten Bizkaiko enpresei zuzenduta dago eta zerbitzuaren kostuaren ehuneko hirurogeia diruz lagunduta dago.

### INSTALAZIO BERRIAK

Iragan uztailetik Erandiko instalazio berrietan gaude. Bulegoa eraikuntza berriko eraikin batean kokatuta dago eta tamaina egokiagoa dauka gure aktibitatearen garapenerako.



Edificio Noray

Kontaktu datuak (telefonoa, faxa eta posta elektronikoa) ez dira aldatu.

Gure helbide berria honako hau da:

José Luis Goyoaga kalea, 32 – 2 (207 bulegoa) 48950 Erandio

